



FERNANDO PRADO AYUSO, CMF, JAUNAK
JAINKOARI ETA APOSTOLU AULKI SANTUARI ESKER,
DONOSTIAKO GOTZAINA NAIZEN HONEK

DEKRETU BETEARAZLEA

Biziera Sagaraturako Institutu eta Biziera Apostolikoko Elkartentzako Kongregaziotik, 2025eko apirilaren 2ko 2154/2020 Protokolo zenbakia duen Dekretuaren berri izanik, honakoa jasotzen delarik bertan: Donostiako Elizbarrutiko, Gipuzkoa (Espainia), Donostia hiriko *Jesus, Maria eta Jose* Kristobaldegiko Kontzepzionista Frantziskotarren (Sorkundetarren) Monasterioa ezabatzea.

ADITZERA EMATEN DUT

Gaurtik aurrera, Donostiako *Jesus, Maria eta Jose* Kristobaldegiko Kontzepzionista Frantziskotarren (Sorkundetarren) Monasterioa ezabatua gelditzen dela.

Kongregaziotik jasotako Dekretuan esaten denaren arabera, lekaimeak orden bereko Lizarrako (Iruñeako Artzapezpikutza) eta Peñaranda de Dueroko (Burgosko Artzapezpikutza) Monasteriotara pasa daitezela; dokumentu eta bibliografia funtsak Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoari eta Liburutegiari dohaintzan ematen zaizkie; elkartearen altzariak karitate erakundeei emango zaizkie; eta ondasun higiezin eta higigarriak lekaimeak hartuko dituzten Elkarten jabetzakoak izatera pasatzen dira, Elkarte hauek Orden eta Federazio berekoak direlarik, zuzenbide partikularren arabera.

Bestelako betebeharrak balego hirugarrenetik, zuzenbide arrunteko eta partikularreko aginduak beteko dira elkarrekin adostuz.

Xedapen honen adierazgarri, neure eskuz sinatu eta zigilatutako, eta azpian sinatzen duen Gotzaindegiko kantziler eta idazkari orokorrak berretsitako Dekretu hau bidaltzeko agindua ematen dudala. Gorde bedi agiri honen kopia bat dagokion artxibategian.

Argitara bedi dekretu hau Gotzaindegiko Aldizkari Nagusian.

Donostian emana, 2025eko urriaren 13an

✠ **Fernando Prado Ayuso, CMF**
Donostiako gotzaina

Gotzain Jaunaren aginduz

Luzia Alberro Goikoetxea
Kantziler eta idazkari orokorra